


SANTIMAMIÑEKO KOBAK ETA OMAKO BASO BIZIDUNA

Urdaibaiko barrualdean, aipatu beharreko bi leku daude: Santimamiñeko kobazuloak (bisitarienezako itxita) eta Omarko basoa. Kareharriaren higaduraren ondorioz inguru honetan sortu diren haitzuloak historiaurreko ehiztariak erabili zituzten, aterpe bezala. Horietako bat Santimamiñe dugu, Kortezubi herrian. Han, harpeetako artearen erakusgarri bikaina utzi ziguten gure arbasoek, ehizatu ohi zituzten animaliak pintatu baitzituzten. Beste zenbait haitzulotan, berriz, gure aurrekoek utzitako materialak (hezurrak eta tresnak) aurkitu dituzte.

Santimamiñeko kobazuloa



Santimamiñeko kobazuloa Bizkaiko historiaurreko santutegi garrantzitsua da, kantauri itsasertzeko nabarmenetakoa eta 2008tik Gizatiaren Ondarea, Unescok hala erabakita. Goi Madaleine aldikoak dira koba hauek; 1916an deskubritu zituzten.

Grabatutetan eta margoetan irudikatutako animaliak plastika aldetik sinpleak dira oso, eta bikainak sinpletasun horretan. Kopuru aldetik gehiago direlako, bisontea, zaldia, ahuntza, oreina eta hartz arrea nabarmentzen dira, aspaldiko garaietan inguruotan bizi ziren animaliak. Larbar arteak kobaren lehen zatia hartzen du, egun argia iristen den lekuraino. Sarrerako zati horretan egokitutako hainbat sala daude. Sala horietan, labar arteaz gainera, bitxi geologikoak ere badira: iragazpen burdintsuen eraginez koloreztatutako estalaktitak eta estalaktita eszentrikoen lerroak, esaterako.

Lezika erretegitik abiatzen dira Santimamiñerako eskailerak. Ikustekoa da baserria bera ere, 1761eko atarte arkudun zabala duela. 308 eskailera maila daude kobazuloraino. Bidean, Santimamiñeko ermitaren ondoan (XV. Mendekoa) pasatuko gara. Ereñozarko artadiaren baso itxian ezkututzen da haitzuloa.

Inguruetan, Omako baso liluragarria dago. Artearen eta naturaren arteko harreman berria ezarri zuen Agustin Ibarrola artistak bertan, hainbat pinu margotu eta bizia emanda. Hala, mihise erraldoia egin zuen, ibilian eta perspektibekin jolasean bisitariak berriz osa dezakeen mihisea.

Oma ibarra eta Baso biziduna

Oma ibarrean munturatzeko denak Bizkaian gizakiak modatutako paraje autentikoenetako bat deskubrituko du. Mende batetik gorako baserri itzelak, larre paregabeak eta artadi ezin joriagoa: natura bera agertuko zaigu, bere alde bastiena erakutsiz.



Kortezubiko Lezika jatetxetik abiatzen da basorako ibilbidea. Gernika eta Arteaga lotzen dituen errepedearen erdibidean dago jatetxe hori. Kotxea bertako aparkalekuan utzi eta zuzen zuzenean Baso Bizidunera eramaten duen bidea hartu daiteke.

INGURUAN IKUSTEKO

ELANTXOBE:

Erliebe malkartsukoa eta edertasun handiko herria da.

Herri arrantzalea. Bertara iristean, kresal usainak porturaino eramaten du bidaiaria. 1783an, hainbat kai eraiki zituzten itsasoraen oldarraldiei aurre egiteko. Gaur egun, indartu egin dituzte eta herriaren irudia are ederrago bihurtu dute.

LAIDA ETA LAGA HONDARTZAK:

Bi hondartza hauek Bizkaiko ederrenetakoak dira. Batetik bestera hiruzpalau kilometro besterik ez daude.

Laida itsasadarraren barruan kokatua dago, eta bere edertasuna itsasaldiak sortzen dizkieten itxuraldaketa izugarrietatik datorkio, batzuetan

errekatoek zeharkatzen duten sekulako hondartza dena hurrengoan txiki-txikia geratzen da.

Lagakoa aldiz, Ogoño muturrak ondo babestu eta sekulako paraje arrokatsua sortzen dion hondartza ederra da.

KOKAPENA

